

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

VITORIA-GASTEIZKO UDALA

EKONOMIA SUSTAPENAREN, ENPLEGUAREN, MERKATARITZAREN ETA TURISMOAREN SAILA

2021ean Gasteizko turismoa dinamizatzeko eta hiria sustatzeko laguntzen udal programari dagozkion eskabideak ebaztea

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 45.1 eta 4 artikuluetan xedatutakoarekin ildotik, iragarki honen bitartez jakinarazten zaie interesdunei Ekonomia Sustapenaren, Enpleguaren, Merkataritzaren eta Turismoaren Saileko zinegotzi ordezkariak 2022ko apirilaren 11n emandako ebazpena, zeinaren bidez 2021ean Gasteizko turismoa dinamizatzeko eta hiria sustatzeko laguntzak emateko udal programa ebatzi baitzuen. Hauxe da ebazpenaren edukia:

“2020ko abenduaren 11n onetsi zituen Tokiko Gobernu Batzarrak Gasteizko Udalaren dirulaguntzen deialdiak arautzen dituzten oinarri orokorrak.

2021eko irailaren 24an egindako bilkuran onetsi zituen Tokiko Gobernu Batzarrak 2021ean Gasteizko turismoa dinamizatzeko eta hiria sustatzeko laguntzak emateko udal-programaren deialdi publikoa eta hura arautzeko berariazko oinarriak ere (2021eko urriaren 29ko ALHAO, 124. zk.), norgehiagoka-prozeduraren bitartez tramitatzeko, 100.000,00 euroko zuzkidurarekin, 2021eko ekitaldiko udal aurrekontuko 08.23.4331.471.37 partidaren kontura.

Deialdiaren oinarrietan eskabideak aurkezteko ezarritako epea amaituta, Biltzar eta Turismo Zerbitzuak, 2022ko apirilaren 7ko idazki baten bidez jakinarazi du 25 eskabide jaso zirela epe barruan, eta horietako 4 interesdunek bertan behera utzi zituztela eskabideak. Horrenbestez, proposatzen du 4 horien ukoa onartzea eta beste bost eskabide ukatzea, arrazoi hauengatik:

- 2 eskabide diruz lagundu ezin daitezkeen gastuak aurkezteagatik.
- Eskabide 1 gutxieneko puntuazioa ez lortzeagatik.
- 2 eskabide proiekturako gain-finantzaketa egoteagatik.

Jarraian, 8. oinarrian ildo bakoitzerako ezarritako balioespen-irizpideei jarraituz, txosten teknikoak adierazten du bidezkoa dela 16 laguntza ematea, horietako 13 laguntzen 1. ildoan, eta hiru 2. ildoan.

Hautatze eta Jarraipen Batzordeak 2022ko apirilaren 8an egindako bilkuran aztertu eta eztabaidatu zituen eskabideak; deialdiko baldintzak betetzen zituztela konprobatu, eta oinarrietan ezarritako balioespen-irizpideen arabera balioetsi eta lehenetsi ondoren, deialdia ebazteko proposamen hau egin zitzaion Ekonomia Sustapenaren, Enpleguaren, Merkataritzaren eta Turismoaren Saileko zinegotzi ordezkariari: batetik, aurkeztutako 9 eskabide ukatzea, eta, bestetik, 16 laguntza ematea -hamahiru lehen ildoari dagozkionak, eta hiru bigarren ildoari dagozkionak-, bakoitzak lortutako puntuazioari jarraiki.

Deialdian ezarritako prozeduraren arabera, eta Tokiko Gobernu Batzarraren 2021eko irailaren 24ko erabakiaren ildotik, Ekonomia Sustapenaren, Enpleguaren, Merkataritzaren eta Turismoaren Saileko zinegotzi ordezkariak du eskabideak ebazteko eskumena.

Horrenbestez, udal aurrekontuetan nahikoa kreditu-zuzkidurarik badagoenez, eta Hautatze eta Jarraipen Batzordeak egindako proposamena aintzat harturik, Ekonomia Sustapenaren, Enpleguaren, Merkataritzaren eta Turismoaren Saileko zinegotzi ordezkariak hau,

Ebatzi du

Lehen. Deialdiaren oinarrietan ezarritako betekizunak betetzen ez dituztela egiaztatu ondoren, honakoak eskatutako laguntza ekonomikoa ukatzea:

IFZ / NAN	BETE EZ DEN OINARRIA	EZ EMATEKO ARRAZOIA
B95174983	4.oinarria	Diruz lagundu ezin diren gastuak
G01689918	8.oinarria	Ez du gutxieneko puntuaziorik lortu
B95174983	4.oinarria	Diruz lagundu ezin diren gastuak
B01540665	15.oinarria	Gainfinantzaketa dago, diruz lagundutako jardueraren gainean sinatutako babesletza-kontratuak eraginda
B01554591	15.oinarria	Gainfinantzaketa dago, diruz lagundutako jardueraren gainean sinatutako babesletza-kontratuak eraginda

Bigarrena. Onestea hainbat interesdunek —B01332733, B28016970, B01313600, G01025972— beren eskabidea behera behera utzi izana.

Hirugarrena. Deialdiko baldintzak betetzen zituztela egiaztatu eta aurkeztutako eskabideak balioetsi eta lehenetsi ondoren (9. eta 10.oinarriak), laguntza hauek ematea Gasteizen produktu eta esperientzia turistikoa sortu eta garatzeko, adierazitako zenbatekoarekin, eta egindakoa justifikatzeko baldintzarekin. Honek agortu egiten du deialdiko zuzkidura ekonomikoa.

1. ILDOA: GASTEIZ EGOITATZAT IZANGO DUTEN BILTZARRAK, JARDUNALDIAK EDO EKITALDIAK ANTOLATZEA			
IFZ / NAN	PUNTUAZIOA	DIRU-LAGUNTZA JASO DEZAKEEN INBERTSIOA	DIRULAGUNTZA
G01191980	91	14.967,36 euro	7.483,68 euro
G02818292	90	32.272,43 euro	15.000,00 euro
G01010230	78	4.518,39 euro	2.259,20 euro
A01036102	76	6.740,96 euro	3.370,48 euro
G01530161	75	1.607,83 euro	803,92 euro
B01345909	69	61.717,17 euro	15.000,00 euro
G01519156	67	4.451,02 euro	2.225,51 euro
B01540137	66	15.330,26 euro	7.665,13 euro
B01373489	63	11.244,90 euro	5.622,45 euro
G01172725	63	4.165,00 euro	2.582,50 euro
G01513746	55	6.242,00 euro	3.121,00 euro
Q4800667J	50	16.063,69 euro	8.031,85 euro
G01188978	50	1.170,96 euro	585,48 euro

2. ILDOA: GASTEIZ KANPOAN PROMOZIONATZEA TURISMO-HELMUGA IRAUNKOR GISA			
IFZ / NAN	PUNTUAZIOA	DIRU-LAGUNTZA JASO DEZAKEEN INBERTSIOA	DIRULAGUNTZA
G01039338	82	9.250,24 euro	4.625,12 euro
G01505684	79	2.360,20 euro	1.180,10 euro
A01281187	75	6.138,81 euro	3.069,41 euro
2. ildoko saldoa			21.125,38 euro

Laugarrena. Dirulaguntza teorikoarekin (70.000,00 euro) agortu egiten da berariazko 5. oinarriaren arabera lehen ildoari esleitutako saldoa. Horrenbestez, jarraipen eta balorazio batzordeak proposatuta, eta berariazko 5. oinarrian xedatutakoa betez, 2. ildoko saltotik 3.751,19 euro 1. ildora aldatzeko agintzen da, 1. ildoa deialdiaren oinarriak betetzen dituzten laguntza-eskabide guztiei laguntza eman ahal izateko.

Bosgarrena. Udalaren Biltzar eta Turismo Zerbitzuko teknikariak izendatzea turismo edo biltzarrak sustatzeko proiektu horien jarraipenaren arduradun.

Seigarrena. Dirulaguntzen onuradunek deialdiaren oinarrietan ezarritako betebeharrak betetzen ez badituzte, laguntza horiek bertan behera utzi ahalko dira, eta laguntza osoa edo zati bat ordainduta badago jasotako laguntza itzultzeko eskatuko zaie.

Zazpigarrena. Laguntza-eskatzaile guztiei ebazpenaren berri ematea, eta jakinaraztea horren kontra, administrazio-bidea agortzen baitu, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu ahalko dutela zuzenean Gasteizko Administrazioarekiko Auzietarako Epaitegian, bi hilabeteko epean, jakinarazte egunaren biharamunetik.

Aukeran, horren aurretik, berraztertzeko errekurtsoa aurkeztu ahalko da deialdia onetsi duen organoari berari zuzendurik, hilabeteko epean, iragarki hau jakinarazten den egunaren biharamunetik kontatuta. Errekurtso hori ezesten bada, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu ahalko da Gasteizko administrazioarekiko auzietarako epaitegietan, bi hilabeteko epean errekurtsoa ezesteko ebazpenaren jakinarazpena espresua bada, edo administrazioaren isiltasunak ondorioak dituen egunaren biharamunetik aurrera ezespina ustezkoa bada”

Vitoria-Gasteizen, 2022ko maiatzaren 3an

Administrazio Zerbitzuko burua
IGNACIO CEPEDA CRESPO